



AKTA III B

Gaia: Idazkaritza langile/laguntzaile administratibo baten postua betetzeko hautaketa-prozesua Txileko Santiagon Euskadik Txile, Peru eta Kolonbian daukan Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko.

Lanpostuaren behin betiko esleipena**Prozesua**

Lau faseak amaitu ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak, 2018ko urriaren 16ko Euskadik Txile, Peru eta Kolonbian daukan ordezkariaren Ebazpenaren bidez, ordezkari horren Txileko Santiagoko bulegorako idazkaritza langile/laguntzaile administratibo lan-postuaren hornidurarako aukeratze-prozesu osoa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu zuen, aipatu postua Fabiola Cartes Urrea-ri esleituz behin-behinean.

Ebazpen horren aurka egiteko 10 egun naturaleko epea ezarri zen, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera. Ezarritako epean erreklamaziorik jaso ez delarik, 2018ko urriaren 16ko ordezkariaren Ebazpen bidez, prozesua gainditu duten pertsonen behin-betiko zerrenda argitaratzeari ekin zaio hautagai bakoitzari esleitu zitzaion zenbaki baten bidez, izangaien identitatea errespetatzeko, lan-postua Fabiola Cartes Urrea-ri esleituz behin-betiko, bere izena Ebazpenean argitaratua izan delarik, gardentasun irizpidea beteaz beste izangaiekiko. Horretarako, postuaren esleipendunari berariazko baimena eskatu zitzaion bere izena prozesuaren Azken Ebazpenean argitaratzeko.

Aipatu Ebazpenak ez du bide administratiboa agortzen eta bere aurka interesatuek Gora Jartzeko Helegitea aurkeztu ahalko dute Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Txileko Santiagon, 2018ko urriaren 29an

Rafael Manuel Kutz Garaizabal
Epaimahaiaren Burua

Leyre Madariaga Gangoiti
Epaimahaiaren Bokala

Carolina Avila Cruzatt
Epaimahaiaren Bokala eta Idazkaria